

Joxe Mari Aizega

Jon Odriozola



Txantxangorri elkartearen ateratako argazkia da. 13 urte inguru izango nituen. Joxe Mari Gabiria izan genuen bertsolaritzako irakasle. Patata tortilla pare baten buelta biltzen ginen bertsoan aritzeko.

Egun, harrigarria iruditzen zait bertsoan ibili nintzela gogoratzea; ausardia puntu bat izan nuela uste dut. 1984an, adibidez, txikien mailako bapateko Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalera iritsi nintzen; gogoan dut Karmelo Balda pilotalekuko 'beldur eszenikoa'. Egun, bertsozale xume-xumea naiz.

Joxe Mari, ezkerretik hasita lehena da.

Kadete garaiko argazkia da; 16 bat urte izango nituen (1986). Gurelesa GAC taldean urtebete igaro nuen. Jubeniletan bi. Orduko oso oroitzapen onak ditut; talde giroa... Hainbat pertsonak -Joxe Dorronsorok, Iñigo Larrañagak...- luzatu zidaten laguntza. Lasterketetan, berriz, aldapak azaltzen zirenean oinak minberatu egiten zitzaizkidan. Ordekako txirrindularia nintzen. Unibertsitateko ikasketak hasi orduko aparkatu nuen txirringa. Ziklismoak, gauza asko irakatsi zizkidan. Adibidez, irabazten ez bada, ez dela ezer ere gertatzen.



Joxe Mari, eskubitik laugarrena.

Bere abizenarekin, askok, ez dute asmatzen. Batzuk, adibidez, Aizeaga deitzen diote. "Aizega abizenaren jatorria nafarra da" argitzen du. "Doneztebetik gorantz joanda dagoen Saldias (Nafarroako iparralde) herrikoa. Nire aiton-amonak —aitaren gurasoak— handik etorri ziren Hernanira".

Herri edo inguruko txoko bat aukeratu behar izanez gero, Adarra mendiak duen "irudi esanguratsuak" asko erakartzen du Mondragon Unibertsitateko errektoreordea. "Hernanitik mendiko perspektiba guztia ikustea begiko dut. Horren lekuko, hainbat urtetan, urteberri egunean mendi puntara igo eta salda beroa edan izana" dio Joxe Mari Aizegak.

Bere aisialdian txistua jotzen du tarteka. "Txobito zenarekin ikasi nuen. Orain, noizean behin hautsa kentzen diot: Gabonetan...". Hernanin urteak eman ondoren, egun, Orion bizi da Joxe Mari Aizega. "Bi herrietako herritarrak hurbilak eta xumeak dira" dio. "Gustura bizi nintzen Hernanin, eta primeran bizi naiz hernaniar bezala Orion".

Mondragon Unibertsitateko errektoreordea: "Urte batzuk barru ohartuko gara Bologna prozesua beharrezkoa zela unibertsitatean"

Bolonian (Italia) egona al zara?

Ez, baina badut bere berri.

Bai hiria, eta baita hautsak harrotzen ari den Bolognako prozesuaren inguruan, ezta?

Bai. Zalaparta dezente dago Bologna prozesuaren harian baina edozein eraldaketak berarekin dakarren zerbait da. Gauza asko aldatu behar izaten direnean alde eta aurkako jokaerak ohikoak dira. Urte batzuk barru ohartuko gara Bologna prozesua beharrezkoa zela unibertsitatean.

Zeresan handia ematen ari da.

Denetik dago. Ikasketa unibertsitarioek lan munduari begira antolatutako egotea, positiboa eta funtsezkoa dela uste dut. Hots, ikasketek irteera profesionala izatea.

Unibertsitatea enpresen morroi bihurtuko dela diote zenbaitzuek.

Helburua ez da hori ezta gutxiago ere. Arazoak arazo, Bolognaren xede nagusia, unibertsitatea modernizatzea da. Etorkizuneko unibertsitateak ezin du gure garaioak bezala izaten jarraitu.

Lehen, irakasle bat baino gehiagok, bere ikasleen izenak zein ziren jakin gabe igaro zezaketen ikasturtea. Ikasgelan errosarioa bota eta azterketak egiten zituzten. Klase magistraletan oinarritutako metodologia ezagutu dugu. Beste motibazio eta konpromiso bat lortu behar dugu irakasle eta ikasleen artean.

Eta nork ordainduko du prozesu hau guztia?

Matrikulen afera dela eta, galdera bat dabilkit buruan bueltaka. Hiritar guztiok finantzatu behar al dugu ikasle guztien matrikula? Edota errenten arabera? Alegia, ikasle baten gurasoek ahalmena izanda, hiritar guztiok diruz lagundu behar al diogu? Alor askotan gauza dezente egiteke dago oraindik.

Bolognarekin hori guztiarekin amaituko al da?

Hori da helburua. Adibidez, zer da azterketa bat? Ariketa erabat aleatorioa. Neurtzen duen gauza bakarra, ikaslearen oroimen ahalmena da. Eredu klasikoa erabat zaharkitua dago. Beraz, irakaslearen lana, inplikazioa... eraldatu egin behar dugu. Hori da Bolognako prozesuaren mezu nagusia.

Ikasleak serio hartzen baditu bere ikasketa unibertsitarioak, ez du inolako zentzurik goiza kafetegian kartetan jokatzeko.

Eta noski, gero, azterketa batean bere etorkizun guztia jokatzeko.

Prozesua 1999an jaio zen eta 2015era arte luzatuko da. 16 urterekin, ia adin-nagusiko, Bolognako prozesua gai izango al da erronka berriei aurre egiteko?

Mondragon Unibertsitatean eskaintzen ari garen gradu berrietan dagoeneko ez dago azken azterketarik, jarraipen etengabea baizik. Ingeniaritzan, garai batean, lehen ikasturtea gainditzen zutenen kopurua %30ekoa zen. Aurten, %70ak lortu du. Zergatik? Ikasleak lan gehiago egin eta konprometituagoak daudelako. Ikasle eta irakasleek *feedback* dute. Horrek ikasleak ere motibatzen laguntzen du. Baita emaila hobeak lortzeko ere.





Mondragon Unibertsitateko Zuzendaritza Batzordea

Eredu zaharrarekin arazoak izan zituen ingeniari-tza ikasle baten ama batek, zera esan zidan behin: *"Nire semeak norbaitek bere gainean egotea zen behar zuena. Hau da, hilabeteen behin 'hori hobetu behar duzu' edota 'ondo zoaz' esatea"*. Uste osoa dut, tutoretzen eskutik eta ikasleek euren artean lan-taldetan antolatuz, emaitza hobeak lortu ditzaketela.

Zer botatzen duzu faltan zure ikasle garaitik?

Oso kritiko nintzen apunteak hartu eta azterketak era hartan gaintitzearekin. Ez zen batere motibagarria. Halere, orduko emozio eta askatasuna botatzen ditut faltan. Etorkizunari begira, unibertsitateak hoberantz egingo du. Hori bultzatzen aritzeko aukera izatea oso atsegina da.

Nota onak ateratzen zenituen ikasle zinen. Asko ikasten zuena edota jasotakoa barneratzen zekiena?

Bietatik. Ziur aski, hasieran asko ikasitakoa, eta gero, azterketak nola gaintitu ikasi zuena. Banuen ikasteko erraz-

tasuna, hau da, memorizatu, ulertu eta sintetizatzea.

Bi karrera egin zenituen; Zuzenbidea eta Enpresa Zientziak.

Enpresa Zientziekin hasi eta bigarren urterako biak tartekatzen hasi nintzen. Antolatu eta aurrera atera nituen.

Egun Mondragon Unibertsitateko errektoreordea zara. Iñaxio Oliveriren eskutik sartu zinen bertan.

Ikasketak bukatu, doktoretza egin eta EHUn bost urtez aritu nintzen Zuzenbide fakultatean: Finantza Zuzenbideko irakasle lanetan. Hausnarketa bat egin ostean, etorkizunean nire burua ez nuela funtzionario sisteman ikusten ondorioztatu nuen. Eta Mondragon Unibertsitateatik deia jaso ostean, hilabete batzuk irakasle lanetan aritu ondoren, errektoreorde postua eskaini orduko Oliverirekin hasi nintzen lanean.

Erronka berri hura 'Bolonja pertsonal' moduko bat izan al zen?

Ilusioz beteriko apustua, bai. Desafio garrantzitsua baina aldi berean,

antolaketa kooperatiboak hurbiltasuna sustatzen duenez, pertsonen arteko hartu-emana oso zuzena izatea ahalbidetzen du.

Eta zein da errektoreorde baten egitekoa?

Hiru ardatz ditu. Batetik, unibertsitate osoa garatzeko hartzen diren proiektu estrategikoak bultzatzea: epe luze-koak. Bestetik, fakultate ezberdinen arteko koordinazio dezente. Eta erlazio instituzionalak ere, mordoska bat.

Irakaskuntzara itzultzeko asmorik?

Batzuetan, bai. Halere, kudeaketan buru-belarri murgildurik gustura nabil.

Kudeatu eta irakatsi ez ezik, zenbait ikerkuntza ere argitaratu dituzu.

Irakasle garaian dezente aritu nintzen ikertzen. Zuzenbide arloko gaiak batik bat; Kontzertu Ekonomikoa...

Zer ezaugarri ditu Mendeberrirakaskuntza ereduak?

Unibertsitatea eraldatzeko gure proiektu



Basque Culinary Center Fundazioko lehenengo prentsa-aurrekoa

propioa da *Mendeberri*. Galderak egin genizkion gure buruari. Zer behar du gizarteak etorkizunean? Zer titulu mota? Zer gaitasun? Galderak erantzun ahala gure eredu pedagogikoren zutabeak jarri eta aplikatzen hasi ginen. Ondorioz, Euskal Herrian gradu berriak ezartzen lehena Mondragon Unibertsitatea izan da. Taldeetan oinarritutako metodologia aktiboen ezarpena, eleaniztasuna... bultzatzen dugu.

Hau da, ikasten eta irakasten ikasi.

Bai. Arazo berriei behar den bezala erantzuten. Ikasle batek edota edozein pertsonak errealitatean topatuko duen arazo bat, unibertsitatera ekarri eta irtenbideak aurkitzen ahalegintzen gara. Ez du zerikusirik orain arte ezagutu dugun unibertsitatearekin.

Nola sortu daiteke lider bat?

Badago eztabaida bat, liderra jaio edota egiten ote den. Guk gure ikasle-taldee, irakasleen laguntzarekin, -dinamismoaren eskutik...- arazoak gaintzeko bostekoa luzatzen diegu. Entrenamendu kontua da. Lider mota

ezberdinak daude; bidea irekitzen dutenak, jendea integratzen dakienak...

Bolognarekin ikasketak eta lana tartekatzea posible izango al da?

Lanaren arabera. Oinarritzko maila batean, ikasketekin zerikusia duen lana baldin bada, Mondragon Unibertsitateak kreditu batzuen bitartez onartu egingo du. Hori ere ikastea baita. Hainbat gaitasun eskuratuko baititu ikasleak.

Eta klasera asistentzia, nahi-taezkoa?

Unibertsitate bakoitzak bere arauak jarriko ditu baina ez dut uste asistentzia behar-beharrezkoa izango denik. Ikaste-prozesuan ardura eta parte-hartzea zuzenagoa izango denez, ikaslea ez bada jardueretan murgiltzen, gauza asko utziko ditu bidean. Hau da, hankamotz geratzeko arriskua izango du.

Beraz, kafetegietako mus txapelketak desagertzeaz daude?

(Barrez) Txapelketen iraupenaren arabera. Bazkalostean, kafetxo bat hartuz, ordubeteko partida batek ez dio inori

minik egiten. Baina lehia goiz osokoa bada...

Mondragon Unibertsitateak, 2011n, Miramonen, Gastronomía Zientzien fakultatea (Basque Culinary Center) jarriko du martxan. Hernanin sukaldari onak ditugu. Lekurik izango al dute?

Ederki poztuko nintzateke hala balitz. Gastronomía fakultatea Hernaniko mugetan eraikiko da gainera. Euskal Herriak duen kultura gastronomikoa izango du ardatz, eta noski, sona ezberdineko sukaldariek hartuko dute parte.

Eta zu pertza artean zer moduz?

Nahiko txukun. Zalea naiz. Maila ertain batean arrain zein haragiarekin moldatzen naiz. Gustuko dut zartagin artean ibiltzea; ilunabar eta aste-buruetan afaria prestatzea laket dut.

Sagardotegien filosofiaren defendatzailea al zara?

Bai, noski. Aitak, sagardoa egiten duenez ez dut oso urrutira bila joan beharrik izaten. ■